

ZERBITZU AGINDU ZKIA. Nº ORDEN DE SERVICIO: **48/0000705/19**

OFIZIOA/ OFICIO

ENPRESA/ EMPRESA: GOBIERNO VASCO-EUSKO JAURLARITZA
IFK,IFZ/CIF,NIF: S4833001C
JARDUERA/ACTIVIDAD: SEGURIDAD
LAN ZENTRUA/CENTRO DE TRABAJO: COMISARIA DE LA
ERTZAINZTA EN ERANDIO
GURE ERREF./ NTRA. REF.: AH0037
GAIA/ASUNTO: BEHIN BETIKO ERREKERIMENDUAREN
KOMUNIKAZIOA / COMUNICACIÓN REQUERIMIENTO
DEFINITIVO

HARTZAILEA/DESTINATARIO:

LAN ARRISKUEN PREBENTZIOAREN
EUSKO JAURLARITZA
DELEGADOS DE PREVENCIÓN DE
GOBIERNO VASCO
ARRAURI MENDOTXE BIDEA, 18
48950 ERANDIO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LAN ETA JUSTIZIA SAILA
Bizkaiko Lan Ikuskaritza
DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y JUSTICIA
Inspección de Trabajo de Bizkaia

2019 OTS. FEB. 27

SARRERA	IRTEERA
Zk.	Zk.

2190
76488

Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko 31/95
Legearen 4.3.2 artikulua betez, honekin batera
bidaltzen da **BEHIN BETIKO**
ERREKERIMENDUaren kopia, data honetan,
EUSKO JAURLARITZA empresara.

En cumplimiento del artículo 4.3.2 de la Ley 31/95
de Prevención de Riesgos Laborales, se adjunta
copia del **REQUERIMIENTO DEFINITIVO**
que con esta fecha se realiza a la empresa
GOBIERNO VASCO.

Bilbo, 2019ko otsailaren 26a

Bilbao, a 26 de febrero de 2019

BIZKAIKO LAN IKUSKARITZA BURUA
EL JEFE DE LA INSPECCIÓN DE TRABAJO DE BIZKAIA





EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
SEGURTASUN SAILA
Giza Baitabideen Zuzendaritza
Lan Osasun eta Prebentzioaren Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Dirección de Riesgos Humanos
División de Prevención y Salud Laboral

Izpta./Fdo.: José Antonio Cárrero Fernández

04 MAR 2019

SARRERA	IRTEERA
676E1900266	Zkia.



ZERBITZU AGINDU ZKIA. Nº ORDEN DE SERVICIO: **48/0000705/19**

HARTZAILEA/DESTINATARIO:

BEHIN-BETIKO ERREKERIMENDUA
REQUERIMIENTO DEFINITIVO

ENPRESA/ EMPRESA: **GOBIERNO VASCO EUSKO JAURLARITZA**

IFK,IFZ/CIF,NIF: **S4833001C**


JARDUERA/ACTIVIDAD: **SEGURIDAD**

LAN ZENTRUA/CENTRO DE TRABAJO: **COMISARIA DE LA
ERTZAINZA EN ERANDIO**

GURE ERREF./ NTRA. REF.: **AH0037**

GAIA/ASUNTO: **BEHIN-BETIKO ERREKERIMENDUA /
REQUERIMIENTO DEFINITIVO**

ERTZAINZAREN ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN DE LA ERTZAINZA-POLICIA VASCA
ARRAURI MENDOTXE BIDEA, 18.
48950 ERANDIO



2019 FEB. 27

SARRERA
Zk. 2189

IRTEERA
Zk. 76479

**LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNARI BURUZKO
BEHIN-BETIKO ERREKERIMENDUA, LANEKO
ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO AZAROAREN
8KO 31/1995 LEGEKO 45 ARTIKULUAN
XEDATUTAKOAREN ARABERAKOA**

Behean sinatzen duen lan ikuskatzaileak, Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritza-Sistema Arautzen duen uztailaren 21eko (Uztaliaren 22ko BOE) 23/2015 Legeak ematen dizkion eskumenez baliatuz, honakoa adierazten du:

1.- Hau sinatzen duen ikuskariak, 2019ko urtarrilaren 7an, Errekerimendu Proposamena igorri zuen erreferentziako administrazio-unitatera (Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailera). Proposamen horretan, aurkitutako irregulartasunak, horiek zuzentzeko neurriak, eta betearazpen-epeak jasotzen ziren.

**REQUERIMIENTO DEFINITIVO EN MATERIA DE
SEGURIDAD Y SALUD EN EL TRABAJO DE
CONFORMIDAD CON LO DISPUESTO EN EL ARTÍCULO
45 DE LA LEY 31/1995 DE 8 DE NOVIEMBRE DE
PREVENCIÓN DE RIESGOS LABORALES**

El/la Inspector/a de Trabajo y Seguridad Social que suscribe, en uso de las facultades que le otorgan la Ley 23/2015, de 21 de julio, Ordenadora del Sistema de Inspección de Trabajo y Seguridad Social (B.O.E. de 22 de julio), hace constar:

1.- Que con fecha de 7 de enero de 2019 se extendió por la Inspectora que suscribe, Propuesta de Requerimiento dirigida a la Unidad Administrativa de referencia (Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco), en la que se recogían irregularidades detectadas, medidas para su subsanación y plazos de ejecución.



ZERBITZU AGINDU ZKIA. Nº ORDEN DE SERVICIO: **48/0000705/19**

2.- Alfonso Apellaniz González jaunak (Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Prebentzio Zerbitzu Propioko arduradunak) 2019ko otsailaren 4an egindako alegazioak eta espedientean dauden gainerako dokumentuak ikusirik, jarduneko ikuskariak BEHIN BETIKO ERREKERIMENDU hau egiten du, eta errekerimendua egin zaion administrazioari eta langileen ordezkariari helarazten die (707/2002 Errege Dekretuaren 5. artikulua).

- Prebentzio Zerbitzu Propioko aipatu arduradunak, alegazioen idazkiko lehen atalean, alegazioekin batera 1. Eranskin gisa erantsitako informazio-agiri zehatz bat aipatzen du, eta ikuskari jarduleari jakinarazten dionez, Segurtasun Datuen Fitxetako (aurrerantzean, SDF) zati bat dagoeneko jaso da gaztelaniaz, eta Baliabide Teknikoen eta Zerbitzuen Atalak bidezko kudeaketak egingo ditu enpresa banatzaileak gainerako SDFak bidal ditzan, araudi aplikagarriaren arabera.

Horrekin lotuta, aipatzekoa da egindako errekerimendu-proposamenen bertan kontuan hartzen dela Lofoskopiaren eta Begizko Ikuskapenen Atalaren barruan beren lanpostuari dagozkion funtzioak betetzeko produktu kimikoak erabiltzen dituzten Ertzaintzako langileei zuzendutako informazio-liburuxka I. eranskin gisa atxiki dela alegazio hauekin batera, eta egindako errekerimendu-proposamenaren hirugarren ataleko 1. zenbakian adierazten den bezala, informazio-eskuliburuak gorabehera, SDFk langileek kontsultatzeko moduan eta hizkuntza ofizialean egon beharko direla.

- Lofoskopiaren eta Begizko Ikuskapenen Arriskuen Ebaluazioa alegazioen idazkiaren 2. Eranskin

2.- La Inspectora actuante, a la vista de las alegaciones formuladas en fecha de 4 de febrero de 2019, por D. Alfonso Apellaniz González (Responsable del Servicio de Prevención Propio del Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco), y demás documentos obrantes en el expediente, extiende el siguiente **REQUERIMIENTO DEFINITIVO**, del cual se da traslado a la Administración requerida y a los representantes de personal (art. 5 RD 707/2002).

- En el apartado primero del escrito de alegaciones el citado Responsable del Servicio de Prevención Propio hace referencia a un documento informativo exhaustivo adjuntado como Anexo 1 a las alegaciones e informa a la actuante que una parte de las Fichas de Datos de Seguridad –en adelante FDS- ya las han recibido en castellano, así como que la División de Recursos Técnicos y Servicios realizará las gestiones oportunas para conseguir que la empresa distribuidora remita las restantes FDS conforme a la normativa de aplicación.

En relación a lo anterior señalar que ya en la Propuesta de Requerimiento efectuada se tiene en cuenta el Folleto Informativo destinado al personal de la Ertzaintza que utiliza productos químicos para desempeñar las funciones asignadas a su puesto dentro de la Sección de Lofoscopia e Inspecciones Oculares que se aporta como Anexo I a las presentes alegaciones y que tal y como se indica en Apartado Tercero, nº 1, de la Propuesta de Requerimiento efectuada, independientemente de los Manuales de Información, las FDS deberán estar disponibles para la consulta por los trabajadores y estar en lengua oficial.

- En cuanto a la Evaluación de Riesgos de Lofoscopia e Inspecciones Oculares que se adjunta como

ZERBITZU AGINDU ZKIA. Nº ORDEN DE SERVICIO: **48/0000705/19**

gisa atxiki da, eta 2017ko ekaineko data dauka. Jarduleak lehendik ere aztertu zuen agiri hori, eta haren gainean, honako hau dio errekerimendu-proposamenaren hirugarren ataleko 2. zenbakiak:

Lofoskopiaren eta Begizko Ikuskapenen lanpostuko eta Lurraldeko Begizko Ikuskapenen lanpostuko arriskuen ebaluazioan, lanpostu horiek betetzen dituzten langileek erabiltzen dituzten produktu kimiko batzuk baino ez dira aipatzen. Arrisku kimikoaren ebaluazioan, baina, uki diezaieketen agente guztiak, horien ezaugarriak eta erabilera-ingurua jaso beharko dira.

Lofoskopiaren eta Begizko Ikuskapenen lanpostuaren arriskuen ebaluazioan, lanpostu horretan erabilitako produktu kimiko jakin batzuk soilik aipatzen dira; bertan ez da aipatzen kantzerigenotzat jotzen direnik (H-350), eta, beraz, nahitaez aplikatu behar denik maiatzaren 12ko 665/1997 Errege Dekretuak (langileak lanean agente kantzerigenoekiko esposizioari lotutako arriskuetatik babestekoak) xedatzen duena.

Lofoskopiaren eta Begizko Ikuskapenen lanpostuan nahiz Lurraldeko Begizko Ikuskapenen lanpostuan erabiltzen diren beste produktu batzuk agente kimiko arriskutsu gisa sailkatzen dira, susmoa dagoelako minbizia sor dezaketela edo efektu genetikoak izan, edo kaltegarriak izan daitezkeela fetuaren emankortasunerako. Ondorioz, apirilaren 6ko 374/2001 Errege Dekretua aplikatu beharko litzateke, langileen osasuna eta segurtasuna babesteko, lanean agente kimikoekin jarduteari lotutako arriskuei dagokienez. Horren gaineko iruzkinik ez da agertzen arriskuen ebaluazioan.

Aurkeztutako alegazioek baieztatzen dutenez, aipatu

Anexo 2 al escrito de alegaciones, que data de junio de 2017, señalar que la misma ya fue objeto de análisis por la actuante y que respecto a la misma se especifica en el Apartado Tercero, nº 2, de la Propuesta de Requerimiento efectuada:

En la Evaluación de Riesgos del puesto de Lofoscopia e Inspecciones Oculares y del puesto de Inspecciones Oculares Territoriales, sólo hacen referencia a algunos de los productos químicos utilizados por el personal que ocupa dichos puestos. La Evaluación de Riesgo Químico deberá contemplar todos los agentes a los que estén expuestos, sus condiciones y entorno de uso.

En la Evaluación de Riesgos del puesto de Lofoscopia e Inspecciones Oculares sólo se hace referencia a algunos de los productos químicos utilizados en dicho puesto, sin que en la misma se mencione su consideración de cancerígenos (frases H-350) y por ende la necesaria aplicación de lo dispuesto en el Real Decreto 665/1997, de 12 de mayo, sobre la protección de los trabajadores contra los riesgos relacionados con la exposición a agentes cancerígenos durante el trabajo.

Otros productos que utilizan tanto el puesto de Lofoscopia e Inspecciones Oculares como el de Inspecciones Oculares Territoriales están clasificados como agentes químicos peligrosos, ya que se sospecha que pueden generar cáncer o tener efectos genéticos, o que son perjudiciales para la fertilidad en el feto, a los que les sería de aplicación el Real Decreto 374/2001, de 6 de abril, sobre la protección de la salud y seguridad de los trabajadores contra los riesgos relacionados con los agentes químicos peligrosos durante el trabajo, no haciéndose mención alguna tampoco de dicha consideración en la Evaluación de Riesgos.

Las alegaciones presentadas se limitan a afirmar que la

ZERBITZU AGINDU ZKIA. Nº ORDEN DE SERVICIO: **48/0000705/19**

ebaluazioan arrisku guztiak jasotzen dira, kantzerigenoak eta mutagenoak barne, bai eta prebentzio-neurriak eta erabili beharreko babes-ekipoak ere, kolektibo nahiz indibidualak. Alegazioen arabera, gainera, laborategiaren birmoldaketa osoa egin zen, segurtasunaren arloan baldintzak hobetzeko. Hala ere, inola ere ez dira hutsalduek jarduleak Lofoskopiaren eta Begizko Ikuskapenen lanpostuan edo Lurraldeko Begizko Ikuskapenen lanpostuan egindako arriskuen ebaluazioan antzeman dituen hutsuneak.

- Aurkeztutako alegazio-idazkiaren hirugarren atalaren arabera, ez dagoenez ingurumeneko kontzentrazioa zehaztu ahal izateko substraturik edo ingurumeneko balio-mugarik, Fenoftaleina 288PX2 eta Gatz Urdina DCS100A delakoetarako COSHH metodo kualitatiboa aplikatu zen, aipatu nahaste kimikoei arrisku-magnitute bat emateko. Horren harira, atxikitako 3. eta 4. Eranskinak aipatzen dira.

Aurrekoarekin lotuta, Ertzaintzako Polizia Zientifikoaren Unitateko Lofoskopiaren eta Begizko Ikuskapenen Laborategian agente kimikoen eraginaren ziozko arrisku higienikoaren ebaluazioa atxiki da 3. Eranskinean, 2017ko otsailekoa bera, eta, bertan, honako agente kimiko hauen laginak aztertu dira: Titanio-dioxidoa; Triklorometanoa; Bentzenoan disolbagarriak, eta HAP's, Etanol eta Etanol eta Fenol. Emaizten arabera, arrisku-egoera onargarriak antzeman dira kasu guztietan, Triklorometanoan –TRA20- izan ezik; bertan, arriskua onartezina izan da.

Aipatu ebaluazioaren arabera, beharrezkoa zen berehala neurtzea zein zen TRA20ren eragina eraikinaren erauzketa-sistema nagusiarekiko independentea den erauzketa-sistema orokorra eta erauzketa lokalizatua dauzkan lokal batean. Ondorioz,

citada Evaluación recoge todos los riesgos, incluidos los cancerígenos y mutágenos, las medidas preventivas y los equipos de protección a utilizar, tanto colectivos como individuales, y que se llevó a cabo una remodelación integral del laboratorio, para mejorar las condiciones desde el punto de vista de seguridad, pero en ningún caso desvirtúa las deficiencias detectadas por la actuante en la Evaluación de Riesgos del puesto de Lofoscopia e Inspecciones Oculares y del puesto de Inspecciones Oculares Territoriales.

- En el apartado tercero del escrito de alegaciones presentado se argumenta que al no disponer de un límite valor ambiental o no disponer de sustrato que permitiera determinar la concentración ambiental, se llevó a cabo la aplicación del método cualitativo COSHH para la Fenoftaleina 288PX2 y Sal Azul DCS100A con el fin de asignar una magnitud de riesgo a las mencionadas mezclas químicas y se hace referencia al Anexo 3 y 4 adjuntados.

En relación a lo anterior, señalar que el Anexo 3 se adjunta la Evaluación del Riesgo Higiénico por exposición a Agentes Químicos en el Laboratorio de Lofoscopia e Inspecciones Oculares de la Unidad de Policía Científica de la Ertzainta, de febrero de 2017, donde se analizan las muestras de los siguientes agentes químicos: Dióxido de titanio; Triclorometano; Solubles en benceno y HAP's, Etanol y Etanol y Fenol, dando como resultado situaciones aceptables de riesgo en todas, a excepción del Triclorometano –TRA20-, en la que la situación de riesgo era inaceptable.

En la citada Evaluación se recogía la necesidad de medir inmediatamente la exposición al TRA20 en un local con extracción localizada y un sistema de extracción general independiente del sistema de extracción general de edificio, de ahí que se llevó a cabo la Evaluación

ZERBITZU AGINDU ZKIA. Nº ORDEN DE SERVICIO: **48/0000705/19**

eta erabiltzen direla. Sistema itxi bat aplikatzea teknikoki ezinezkoa denean, enpresariak bermatu egingo du langileen esposizio-maila teknikoki zilegi den beste murrizten dela. Eta, nolahi ere, agente kantzerigeno edo mutageno bat erabiltzen bada, enpresariak bermatu egin beharko du 665/1997 Errege Dekretuaren 5.4. artikuluan aurreikusitako prebentzioko eta murrizketako neurriak aplikatzen direla. Ebaluazio hori aztertu ondoren, argi eta garbi adierazi beharko da 665/2001 Errege Dekretua aplikatuz zein neurri eta arrisku hartu diren langileen osasuna eta segurtasuna babesteko agente kantzerigeno edo mutagenoen aurrean.

3. Apirilaren 6ko 374/2001 Errege Dekretuaren 3.5. artikuluan ezarritakoa betez, agente kimiko arriskutsuak inhalatzearen eraginaren ondoriozko arriskuen ebaluazioan sartu beharko dira airean, hots, langilearen aireztatze-gunean dauden agente guztien kontzentrazioen neurketak, eta, ondoren, emaitza horiek alderatu egin beharko dira kasuan kasuko ingurumeneko balio-mugarekin. Era berean, adierazten denez, neurri horiek ez dira beharrezkoak izango, baldin eta enpresariak argi eta garbi frogatzen badu beste ebaluazio-modu batzuen bidez prebentzio eta babes egokia lortu dela. Kasu horretan, 347/2001 Errege Dekretuaren 3.9. artikuluan ezarritakoaren arabera, behar bezala jaso beharko da agirieta, arriskuen ebaluazioaren barruan, zein arrazoren zioz uste den ez dela beharrezkoa neurketak egitea.

Beraz, lantokian dauden agente kimiko guztien kontzentrazioen neurketak egin beharko dira. Salbuespena izango da, baldin eta behar bezala dokumentatutako beste ebaluazio-modu batzuen bidez egiaztatu ahal bada prebentzio eta babes egokia egon badagoela.

la producción y utilización del mismo se lleven a cabo en un sistema cerrado. Y cuando la aplicación de un sistema cerrado no sea técnicamente posible, el empresario garantizará que el nivel de exposición de los trabajadores se reduzca a un valor tan bajo como sea técnicamente posible. Y en cualquier caso y siempre que se utilice un agente cancerígeno o mutágeno, el empresario deberá garantizar la aplicación de las medidas de prevención y reducción previstas en el artículo 5.4 del Real Decreto 665/1997. Debiendo quedar claramente reflejado tras analizar dicha Evaluación, los riesgos y medidas que en aplicación del Real Decreto 665/2001, se han adoptado para proteger la seguridad y salud de los trabajadores frente a la exposición de los trabajadores a agentes cancerígenos o mutágenos.

3. En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 3.5 del Real Decreto 374/2001, de 6 de abril, la Evaluación de Riesgos derivados de la exposición por inhalación a un agente químico peligrosos deberá incluir la mediciones de las concentraciones de todos los agentes presentes *en el aire, en la zona de respiración* del trabajador, y su posterior comparación con el *valor límite ambiental* que corresponda. Indicándose asimismo que estas mediciones no serán, sin embargo, necesarias, cuando el empresario demuestre claramente por otros medios de evaluación que se ha logrado una adecuada prevención y protección, debiendo en tal caso tal y como exige el artículo 3.9 del Real Decreto 347/2001 quedar debidamente documentado dentro de la Evaluación de Riesgos las razones por las que no se considera necesario efectuar mediciones.

Por lo que se deberán efectuar mediciones de las concentraciones de todos los agentes químicos presentes en el lugar de trabajo, salvo que se pueda



ZERBITZU AGINDU ZKIA. Nº ORDEN DE SERVICIO: **48/0000705/19**

Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduen II. Kapituluako 1. Atalean ezarritakoaren arabera, kontuan hartuta ebaluazioaren emaitzek langileen osasunerako eta segurtasunerako arriskurik eragiten badute, bertan adierazi beharko direla 374/2001 Errege Dekretuaren 5. 6. eta 7. artikuluetan ezarritako osasunaren prebentzio, babes eta zaintzarako neurri zehatz aplikagarriak. Arriskuen ebaluazioaren emaitzetan agerian geratzen bada lantoki bateko agente kimiko arriskutsuaren kopuruak arrisku arina baino ez duela eragiten langileen osasunerako eta segurtasunerako, ez da beharrezkoa izango neurri zehatz horiek aplikatzea; arrisku hori murrizteko aski izango da aipatu Errege Dekretuaren 4. artikuluan ezarritako prebentzio-printzipioak aplikatzea. Ebaluazio hori aztertu ondoren, argi eta garbi adierazi beharko da 374/2001 Errege Dekretua aplikatuz zein neurri eta arrisku hartu behar diren langileen osasuna eta segurtasuna babesteko agente kimiko arriskutsuen aurrean.

Era berean, agente kantzerigenoak edo mutagenoak badaude, 665/1997 Errege Dekretuaren 3. artikuluen arabera eta urtarilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak (Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duenak) 2. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, horiek ebaluatuko dira, langileen eraginaren iraupena, maila eta izaera zehaztuta, saihestu ezin izan direnerako. Ebaluazioaren emaitzek adierazten badute langileen segurtasunerako edo osasunerako arriskurik dagoela agente kantzerigenoen eraginagatik, eragin hori saihestu egin beharko da eta ordezkoko bat programatu, aipatu Errege Dekretuaren 4. artikuluan ezarritakoaren arabera. Eta, agente kantzerigenoa ordezteko teknikoki ezinezkoa bada, aipatu Errege Dekretuko 5. artikulua enpresariari eskatzen dio berma dezala agente horiek sistema itxi batean ekoitzi

Prevención, teniendo en cuenta que si los resultados de la evaluación revelan un riesgo para la salud y la seguridad de los trabajadores, se deberán reflejar en la misma las medidas específicas de prevención, protección y vigilancia de la salud establecidas en los artículos 5, 6 y 7 del Real Decreto 374/2001 que resulten de aplicación. Y que en aquellos supuestos en que los resultados de la evaluación de riesgos pongan de manifiesto que la cantidad de un agente químico peligroso presente en el lugar de trabajo hace que sólo exista un riesgo leve para la salud y seguridad de los trabajadores no serán necesarias la aplicación de dichas medidas específicas, siendo suficiente para reducir dicho riesgo la aplicación de los principios de prevención establecidos en el artículo 4 del citado Real Decreto. Debiendo quedar claramente reflejado tras analizar dicha Evaluación, los riesgos y medidas que en aplicación del Real Decreto 374/2001 se adoptan para proteger la seguridad y salud de los trabajadores frente a la exposición de agentes químicos peligrosos.

Igualmente si existen agentes cancerígenos o mutágenos, en aplicación del artículo 3 Real Decreto 665/1997 y de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 2 del Real Decreto 39/1997, de 17 de enero, por el que se aprueba el Reglamento de los Servicios de Prevención, se procederá, para aquellos que no hayan podido evitarse, a evaluar los mismos determinando la naturaleza, el grado y la duración de la exposición de los trabajadores. Teniendo en cuenta que si los resultados de la evaluación pusieran de manifiesto un riesgo para la seguridad o la salud de los trabajadores por exposición a agentes cancerígenos, deberá evitarse dicha exposición y programar su sustitución de conformidad con lo dispuesto en el artículo 4 del citado Real Decreto. Y en caso de que no sea técnicamente posible sustituir el agente cancerígeno, el artículo 5 del Real Decreto citado, exige al empresario garantizar que

ZERBITZU AGINDU ZKIA. Nº ORDEN DE SERVICIO: **48/0000705/19**

ofizialean idatzita daudela, eta, beraz, langileek bertan adierazitakoa uler dezaketela.

2. Polizia Zientifikoko langileek erabiltzen dituzten produktu kimiko batzuetan, printzipioz, kantzerigenoak izaki, aplikatu egin behar da maiatzaren 12ko 665/1997 Errege Dekretua (langileak lanean agente kantzerigenoekiko eta agente kimikoko gisa sailkatuta dauden beste produktu batzuekiko esposizioari lotutako arriskuetatik babestekoa). Izan ere, susmoa dago minbizia sor dezaketela edo ondorio genetikoak izan, edo kaltegarriak izan daitezkeela fetuaren emankortasunerako. Ondorioz, apirilaren 6ko 374/2001 Errege Dekretua aplikatu beharko litzaietke, langileen osasuna eta segurtasuna babesteko, lanean agente kimikoekin jarduteari lotutako arriskuei dagokienez.

Hori guztia dela eta, errekerimendua egin da, Lofoskopiaren eta Begizko Ikuskapenen lanpostuan eta Lurraldeko Begizko Ikuskapenen lanpostuan arriskuen ebaluazioak kontuan har dezan zein agente kimikoren eragina duten, eta zeintzuk diren horien erabilera-baldintzak eta erabilera-ingurua. Beraz, aipatu 374/2001 Errege Dekretua aplikatu behar da agente kimiko arriskutsuak erabiltzen dituzten lanpostu, inguru eta abar guztietan, bai eta 665/1997 Errege Dekretua ere, baldin eta agente arriskutsu horiei H-350 eta H-340 kantzerigeno edo/eta mutagenoen kalifikazioa aplikatu bazaie, hurrenez hurren.

Hartara, lantokian agente kimiko arriskutsuak badaude, 374/2001 Errege Dekretuaren 3. artikuluari jarraikiz, langileen osasunerako eta segurtasunerako arriskuak ebaluatu beharko dira, agente horiek eragindako arriskuei erreparatuta, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 16. artikuluan eta

oficial del lugar de uso, de modo que permita su comprensión por los trabajadores.

2. Los trabajadores de la Policía Científica utilizan algunos productos químicos que, en principio requieren por ser cancerígenos la aplicación del Real Decreto 665/1997, de 12 de mayo, sobre la protección de los trabajadores contra los riesgos relacionados con la exposición a agentes cancerígenos durante el trabajo y otros productos que están clasificados como agentes químicos peligrosos, ya que se sospecha que pueden generar cáncer o tener efectos genéticos, o que son perjudiciales para la fertilidad en el feto, a los que les sería de aplicación el Real Decreto 374/2001, de 6 de abril, sobre la protección de la salud y seguridad de los trabajadores contra los riesgos relacionados con los agentes químicos peligrosos durante el trabajo.

Atendiendo a lo anterior se requiere para que la Evaluación de Riesgos de los puestos de Lofoscopia e Inspecciones Oculares e Inspecciones Oculares Territoriales contemplen todos los agentes químicos a los que estén expuestos, *así como sus condiciones* de uso y entorno de uso de cada uno de ellos, debiendo aplicarse el referido Real Decreto 374/2001 en todos los puestos, entornos, etc. donde se utilicen agentes químicos peligrosos y el Real Decreto 665/1997, cuando a dichos agentes peligrosos se les haya aplicado la calificación de cancerígenos y/o mutágenos H-350 y H-340 respectivamente.

A tal fin si existen agentes químicos peligrosos en el lugar de trabajo, en aplicación del artículo 3 del Real Decreto 374/2001, se deberán evaluar los riesgos para la salud y seguridad de los trabajadores, originados por dichos agentes, de conformidad con el artículo 16 de la Ley de Prevención de Riesgos Laborales y la sección 1.^a del capítulo II del Reglamento de los Servicios de

ZERBITZU AGINDU ZKIA. Nº ORDEN DE SERVICIO: **48/0000705/19**

665/1997 Errege Dekretuaren arabera, zehazki, agente hori sistema itxi batean ekoitzi eta erabiliko da, depresioan lan eginez, baldin eta agentea ordeztu ezin bada.

Hala ere, errekerimendu-proposamenean azaldutako OSALANen txostenean adierazten denez: Fenoftaleina 288PX2 eta gatz urdina DCS100A delakoetarako COSHH metodoa aplikatu da, eta 4. arrisku-maila atera da Lofoskopian eta Begizko Ikuskapenetan. Ez dago metodo horren aplikazioari buruzko dokumenturik.

Jarduleari ere ez zitzaion agiririk aurkeztu Fenoftaleina 288PX2 eta gatz urdina DCS100A delakoetarako metodo horren aplikazioari buruz, eta aurkeztutako alegazio-idazkian ez da eranskinik gehitu.

HORREGATIK, HONA HEMEN GURE BEHIN BETIKO ERREKERIMENDUA:

1. Apirilaren 6ko 374/2001 Errege Dekretuak (langileen osasuna eta segurtasuna babestekoak, lanean agente kimikoekin jarduteari lotutako arriskuei dagokienez) 9.2. artikuluan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1907/2006 Erregelamenduak (EE) (substantzia eta prestakin kimikoen erregistro, ebaluazio, baimen eta murrizketari buruzkoak) 35. artikuluan ezarritakoaren arabera, langileek Segurtasun Datuen Fitxak eskuratu ahalko dituztela bermatu beharko da, eta Erregelamendu horren 31.5. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, fitxa horiek kasuan kasuko substantzia edo prestakina merkaturatuko duen estatuko edo estatukideetako hizkuntza ofizialean idatzita egon beharko dira. Ondorioz, bermatu egin beharko da langileen esku jarritako SDFak erabilera-lekuko hizkuntza

utilización del agente en cuestión se lleve a cabo en un sistema cerrado y trabajando en depresión siempre que no sea posible la sustitución del agente.

Sin embargo, tal y como se indica en el Informe de OSALAN expuesto en la Propuesta de Requerimiento: Se ha aplicado el Método COSHH a 288PX2 y sal azul DCS100A con resultado de MR igual a 4, en Lofoscopia e Inspecciones Oculares. No se dispone de los documentos sobre la aplicación de dicho método.

Tampoco se aportó a la actuante documentación alguna sobre la aplicación de dicho método a la Fenoftaleina 288PX2 y Sal azul DCS100A, ni se aportan adjuntados al escrito de alegaciones presentado.

POR LO QUE SE REALIZA EL SIGUIENTE REQUERIMIENTO DEFINITIVO:

1. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 9.2 del Real Decreto 374/2001, de 6 de abril, sobre la protección de la salud y seguridad de los trabajadores contra los riesgos relacionados con los agentes químicos durante el trabajo y el artículo 35 del del Reglamento (CE) 1907/2006 del Parlamento europeo y del Consejo, relativo al registro, la evaluación, la autorización y la restricción de las sustancias y preparados químicos (REACH), se deberá garantizar el acceso de los trabajadores a las Fichas de Datos de Seguridad que de conformidad con lo dispuesto en el artículo 31.5 del REACH deberían estar redactadas en un idioma oficial del Estado o los Estados miembros en que se comercialice la sustancia o preparado, por lo que se deberá garantizar que las FDS puestas a disposición de los trabajadores se encuentran redactadas en lengua

ZERBITZU AGINDU ZKIA. Nº ORDEN DE SERVICIO: **48/0000705/19**

4. Eranskin gisa aurkeztutako ebaluazioa egin zen, TRA20ren eraginaren arrisku higienikoa mintzagai. Bertan, 2017ko martxoaren 1ean egindako neurketen ondorioz, honako hau ondorioztatu da: eraginaren **arrisku-maila** ONARGARRIA da TRA20rekiko lan-prozedurarako Lofoskopiaren eta Begizko Ikuskapenen Ataleko teknikariaren lanpostuan, tratamendu kimikoaren salan, bai erauzketa-kanpaiaren barruan, bai kanpoan.

Aipatu 3. eta 4. Eranskinetan aurkeztutako ebaluazioak egiteko Igualatorio Médico Quirúrgico Prevención SLko Prebentzioko teknikari batek egin ditu neurketak, Segurtasun Saileko Laneko Osasun eta Prebentzio Ataleko prebentzioko teknikariak bertan izanda, zerikusirik izan gabe Fenofaleina 288PX2 eta Gatz Urdina DCS100A delakoetarako aplikatutako COSHH Essentials metodo kualitatiboaren aplikazioarekin, nahiz eta bi produktuak diren kantzerigenoak.

- Alegazioaren laugarren atalean adierazitakoaren arabera, NTP 935, 936 eta 937n jasotakoari jarraikiz, Prebentzio Zerbitzuak Fenofaleina 288PX2 eta Gatz Urdina DCS100A delakoetan COSHH Essentials metodoa aplikatzea erabaki zuen. Gai horiek H350 eta H351 arrisku-taldeen barruan sartzen ziren, datuok zehazteko unean ez baitzegoen substraturik neurketa kuantitatiboa egiteko eta agiri batean ere ez baitzen jaso aipatu metodoa erabili ezin denik.

Horrekin lotuta, NTP 936k agente kantzerigenoa E mailako, H motako (H334, H340, H341, H350) eta 4. arriskuko produktuen artean sartzen du, eta, adierazten duenez, kasu hauetan ezinbestekoa da kasuan kasuko prozesurako berariaz diseinatutako neurriak hartzea, aditu baten aholkularitza jasota.

aportada como Anexo 4 del Riesgo Higiénico por exposición al TRA20, en la que tras las mediciones realizadas en fecha de 1 de marzo de 2017 se concluye una Magnitud de riesgo de exposición **ACEPTABLE** para el procedimiento de trabajo con el TRA20 en el puesto de Técnico/a en Lofoscopia e Inspecciones Oculares, dentro de la sala de tratamiento químico, tanto dentro como fuera de la campana extractora.

Las Evaluaciones aportadas en los Anexos 3 y 4 referidos, se han llevado a cabo mediante Mediciones realizadas por un Técnico de Prevención del Igualatorio Médico Quirúrgico Prevención, S.L. en presencia de Técnicos de Prevención de la División de Prevención y Salud Laboral del Departamento de Seguridad, que nada tiene que ver con la aplicación del método cualitativo COSHH Essentials aplicado a la Fenofaleina 288PX2 y a la Sal Azul DCS100A, a pesar de que ambos productos son cancerígenos.

- En el apartado cuarto de las alegaciones se argumenta que en base a lo recogido en la NTP 935, 936 Y 937, el Servicio de Prevención decidió aplicar el método COSHH Essentials para la Fenofaleina 288PX2 y la Sal Azul DCS100A, clasificadas dentro del grupo de peligro H350 y H351, debido a que en el momento de realizar la determinación no se disponía de un sustrato para llevar a cabo una medición cuantitativa y que en ninguna documentación se recoge que no se puede aplicar el citado método.

En relación a lo anterior señalar que la NTP 936 clasifica el agente cancerígeno como producto de nivel E, frase H (H334, H340, H341, H350) y Riesgo Potencial 4, indicando que en estos casos es imprescindible adoptar medidas específicamente diseñadas para el proceso en cuestión recurriendo al asesoramiento de un experto. Este nivel de riesgo requiere normalmente la evaluación

ZERBITZU AGINDU ZKIA. Nº ORDEN DE SERVICIO: **48/0000705/19**

Arrisku-maila honetan normalean eraginaren ebaluazio kuantitatiboa egin behar da, eta kontrol-instalazioen eraginkortasuna aldizka egiaztatzeko maiztasuna areagotu behar da.

Aipatu NTP 936k NTP 872ra jotzen du, usteko arriskua kategorizatu ondoren hartu beharreko ekintzetarako. NTP horrek honako iruzkin hauek egin ditu agente kantzerigenoen gainean:

COSHH Essentials ereduak aurreikusten dituen kontrol-moten barruan, 4. maila zehaztu da, higienista batek azter dezan haren eragin zehatza eta hartu beharreko neurriak. Horretarako, beharrezkoa izan daiteke eraginaren azterketa kuantitatiboa egitea, eta, edonola ere, erabakiak hartzean eredu sinplifikatuan esku hartzen duten parametroak baino asko gehiago baloratu beharko dira.

Agente kantzerigeno eta mutagenoen eraginaren ziozko arriskuen prebentziorako araudi zehatz bat dago, arrisku kimikoaren barruan (665/1997 Errege Dekretua). Ezin da eragin horretarako muga segururik ezarri, baina horrek ez du esan nahi mailak murriztuta kaltea sufritzeko arriskua edo aukera ere murrizten ez denik. Gailendu behar den irizpidea "ahalik eta eraginik txikienarena" izan behar da. Eredu kualitatiboek ez dute zeresan handirik agente kantzerigeno eta mutageno bat agertzen denean: agente horiek beti sailkatuko lirateke 4. kontrol-mailaren barruan (adituak egindako ebaluazioaren arabera). Egin beharreko ekintzak hainbat izan daitezke, eragina ahalik eta txikiena izan dadin (kopuruak mugatzea, eraginpean dauden langileak murriztea, prozesuak, prozedurak eta bestelakoak diseinatzea...). Ziur aske ingurumeneko kontzentrazioen gaineko datu kuantitatiboak lortuko lirateke hala, eta, nahitaez, ordezkokoak bilatu.

cuantitativa de la exposición, así como extremar la frecuencia de la verificación periódica de la eficacia de las instalaciones de control.

La citada NTP 936 remite a la NTP 872 en cuanto a las acciones a tomar después de categorizar el riesgo potencial. Esta NTP realiza las siguientes consideraciones sobre los agentes cancerígenos:

Dentro de los tipos de control que prevé el modelo COSHH Essentials se ha definido el nivel 4 como una situación que requiere el estudio individualizado de la exposición y de las medidas a adoptar por parte de un higienista. Ello puede implicar la necesidad de un estudio cuantitativo de la exposición y, en cualquier caso, tomar decisiones valorando muchos más parámetros que los que intervienen en el modelo simplificado.

La prevención de riesgos derivados de la exposición a agentes cancerígenos y mutágenos dispone de una normativa específica dentro del riesgo químico (RD 665/1997). No es posible establecer límites seguros para su exposición, lo cual no significa que reduciendo los niveles no se esté también reduciendo el riesgo o probabilidad de sufrir el daño. Debe imperar el criterio de "mínima exposición posible". Los modelos cualitativos tienen poco que decir ante la presencia de un agente cancerígeno y mutágeno: estos agentes se clasificarían siempre dentro del nivel 4 de control (evaluación por experto). Las acciones a desarrollar pueden ser varias, encaminadas a reducir al mínimo la exposición (limitación de cantidades, del número de trabajadores expuestos, diseño de procesos, procedimientos...), probablemente a disponer de datos cuantitativos de concentración ambiental y necesariamente a la búsqueda de sustitutos. En concreto, el RD 665/1997 prevé que la producción y

ZERBITZU AGINDU ZKIA. Nº ORDEN DE SERVICIO: **48/0000705/19**

4. Errekerimendua egin da, lantokiko agente arriskutsuen eraginaren ebaluazioa egiteko erabilitako metodoa ebaluatu nahi den arriskuarekin bateragarria dela berma dadin, 374/2001 Errege Dekretuaren 3.5. artikuluan eta 665/1997 Errege Dekretuaren 5.5 e) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Ondorioz, NTP 936 eta 872an eta apirilaren 6ko 374/2001 Errege Dekretuak (langileen osasuna eta segurtasuna babestekoak, lanean agente kimikoekin jarduteari lotutako arriskuei dagokienez) 3. artikuluan ezarritakoaren arabera, hasiera batean agente kantzerigeno bat ebaluatzeko metodo egokia neurketa da, baina soilik baldin eta aditu higienista batek (Higiene Industrialdeko goi-mailako teknikari batek) baloratzen edo justifikatzen badu ez dela beharrezkoa/zilegi neurketa kuantitatiboak egitea, eraginaren maiztasunagatik, erabili beharreko substratu-kopuruagatik eta abar; halakoetan, COSHH Essentials metodo kualitatiboa erabili dadila onartu ahalko da, kontuan hartuta 4. arriskua dagoela. Halaber, hartu beharreko prebentzio-neurriak ezarri beharko dira, aditu higienista batek behar bezala justifikatuta eta dokumentatuta.

GAUZATZEKO EPEA: SEI HILABETE, errekerimendu honen berri jasotzen denetik.

Derrigor betebharreko **BEHIN-BETIKO ERREKERIMENDU** honen berri prebentzio-delegatuei ematen zaie, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen 43.2 artikulua dioenaren arabera.

acreditar por otros medios de evaluación debidamente documentados, la existencia una adecuada prevención y protección.

4. Se requiere para que se garantice que el método utilizado para realizar la evaluación de la exposición de agentes químicos peligrosos en el lugar de trabajo sea compatible con el riesgo que se quiere evaluar, en aplicación de lo dispuesto en el artículo 3.5 del Real Decreto 374/2001 y en el artículo 5.5 e) del Real Decreto 665/1997.

Por lo tanto atendiendo a lo dispuesto en las NTP 936 y 872 y en el artículo 3 del Real Decreto 374/2001, de 6 de abril, sobre la protección de la salud y seguridad de los trabajadores contra los riesgos relacionados con los agentes químicos durante el trabajo, en un principio el método adecuado para la evaluación de un agente cancerígeno es la medición, pero solo en el supuesto que se valore o justifique por un experto higienista (Técnico Superior en Higiene Industrial) la no necesidad/posibilidad de mediciones cuantitativas, ya sea por frecuencia de exposición, cantidad de sustrato a utilizar, etc) se podrá admitir la utilización del método cualitativo COSHH Essentials, teniendo en cuenta que se encuentra con un riesgo potencial 4 y deberán establecerse las medidas preventivas a adoptar, debiendo quedar todo ello justificado y documentado por el experto higienista.

PLAZO DE EJECUCIÓN: SEIS MESES desde que se tenga conocimiento del presente requerimiento.

De este **REQUERIMIENTO DEFINITIVO** de obligado cumplimiento se informa a los Delegados de Prevención, en base a lo dispuesto en el artículo 43.2



ZERBITZU AGINDU ZKIA. Nº ORDEN DE SERVICIO: **48/0000705/19**

Hori guztia, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko (10eko BOE) 31/1995 Legeko 45. artikuluan eta uztailaren 19ko 707/2002 Errege Dekretuan, Estatuko Administrazio Orokorraren arloan laneko arriskuen prebentzioari buruzko arau-hausteen aurkako neurri zuzentzaileak ezartzeko Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzaren Jardunerako Administrazio-Prozedura Bereziari buruzkoan, xedatutakoaren arabera (2002ko uztailaren 31ko BOE), betiere apirilaren 25eko 464/2003 Dekretuak ezarritakoari jarraiki (ekainaren 11ko BOE).

Erakunde Publikoa eta Langileen Ordezkariek ohartarazten dira, 707/2002 Dekretuko 5.5. artikuluan ezarritakoari jarraiki —berezko araudia egon ezean gainerako administrazio publikoetako pertsonal zibilar aplikatzekoa baita (uztailaren 19ko 707/2002 Errege Dekretuko bigarren Xedapen Gehigarria)— **BEHIN BETIKO ERREKERIMENDU**an ezarritako epea amaitu ondoren, aipatutako administrazio publikoko dagokion gobernu-organismoari jakinaraziko zaiola, dagozkion ondorioetarako, 2002/707 Errege Dekretuko 6. eta 7. idatz-zatietan ezarritakoaren arabera.

Bilbo, 2019ko otsailaren 22a

de la Ley 31/1995, de Prevención de Riesgos Laborales.

Todo ello de conformidad con lo dispuesto en el Art. 45 de la Ley 31/1995 de 8 de noviembre de Prevención de Riesgos Laborales (BOE del 10) y Real Decreto 707/2002 de 19 de julio, por el que se aprueba el Reglamento sobre el Procedimiento Administrativo Especial de actuación de la Inspección de Trabajo y Seguridad Social y para la Imposición de Medidas Correctoras de Incumplimientos en materia de Prevención de Riesgos Laborales en el ámbito de la Administración General del Estado (BOE de 31-7-2002), según redacción por el Real Decreto 464/2003 de 25 de abril. (BOE de 11 de Junio).

Se advierte al Organismo Público y a los Representantes del Personal que, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 5.5 del Real Decreto 707/2002 aplicable en defecto de normativa propia al personal civil del resto de las Administraciones Públicas (Disposición Adicional Segunda del RD 707/2002 de 19 de julio) transcurrido el plazo de cumplimiento establecido en el **REQUERIMIENTO DEFINITIVO**, se procederá a su comunicación al respectivo órgano de Gobierno de la citada Administración Pública a los efectos que procedan, de conformidad con lo dispuesto en los apartados 6º y 7º del RD 707/2002.

Bilbao, a 22 de febrero de 2019

LAN ETA GIZARTE SEGURANTZAKO IKUSKATZAILEA
LA INSPECTORA DE TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

Izpta./Fdo.: INMACULADA C. GÓMEZ GÓMEZ.